

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Gure jokua.
Kaskezur.
Labateltkueyo.
Iraupena: 51'45".
10 euro.

Mugan bizi direnek ez dute mugarik

BAZTANDARRAK burugorrrak eta tematiak omen dira, eta zakurra oso urrun bidali eta bateria jotzailea aldatu ostean bueltan datoz berriro. Diskoaren izenburuan agerian uzten duten moduan musika beraientzat jokoa edo jolasa da, eta horregatik estilo ugartan barrena aritzea gustuko dute. Gai dira rock klasikoa, funkya eta psikodelia batzen dituen piezarekin hasteko, Negu Gorriak-en kanta dantzagarrietatik hurbil aritzeko eta punk-rock bizi

zein zoroa jorratzeko. Mugan bizi direnek ez dute mugarik. Hori gutxi bada, instant batean armonika atera eta bluesaren arima kanpora aterako dute edo doinu arabiarrok rock intentsitatez harrapatuko dituzte, besteak beste. Hitzetan, maitemina, galdera existentzialak, Bagdadeko gorabeherak, martzianoen inbasioak eta bestelako istorioak dituzte berbagai.

www.myspace.com/kaskezur

Kaskezur

«Geroz eta argiago dugu hitz txarrekin ez dela kanta onik»

Gaur egun ezohikoa bada ere, psikodelia zaleak zaretela antzematen zaizue...

Psikodelia ohiko bideetatik ateratzen da, hori ona da. Gaur egun kontsumo azkarreko kanta prefabrikatuak entzutea behartzen gaituzten garaietan, osasungarria da patxadaz musika askeagoak entzutea.

Gaiak ezohikoak, eta hitzak luze samarrak dira. Irudimen handia duzue edo espresatzeko behar handia?

Izerdi handienak hitzak egiten botatzen ditugu, gehien kostatzen zaiguna da. Agian esfortzu hori da ezohiko egiten dituen. Geroz eta argiago dugu hitz txarrekin ez dela kanta onik.

Musika eta hitzetan, klixeeetatik alde egiten saiatzen zarete? Helburu kontzientea da?

Bai kontzientea da. Ideiak behin eta berriz errepikatzen direnean azkenean aspertu egiten dute eta diskoaren



ren izenak dioen bezala musika jolasa da eta gauzak beste modu batez egiten saiatzea jolas horren zati handia.

Ireki begiak. Neskalgun "komunistak" arriskutsuenak dira? Bildu koalizioaren eta Ezker Batuaren hondamendiaren garaietan bada komunistarik?

Neskalgun kapitalistak arrisku-tsuagoak izateaz gain, garestia

dira. Ez dakit komunistak askorik egonen den, baina ideia komunistak askorekin bat egiten duen jendea dago; are gehiago, egungo sistemak pot egin duenean eta horrenbeste jende diskriminatzen denean.

Oasi ederra. Etorkinentzat keinu gehiago egin beharko genituzke? Nola bururatu zitzaizuen kanta hori?

Berez emakumeari buruzko kanta da. Etorkinei keinu gehiago egin beharrean, herrialdeen arteko elkartasuna aldarrikatu

beharko genuke.

"Kasetteak, biniloak, tertzioko gargaardoak, errobotak...". Faltan botatzen duzue iragana?

Ez dugu iragana faltan botatzen, baina ohitura asko mantentzen ditugu oraindik, CDak eta biniloak erostea bezala. Izan ere, etorkizunak gauza onak eta txarrak dakartzatza, eta hobe bakoitzetik onena hartzea. ■